

## MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure bezeroa bizikleta erabiltzen duen adin oroko jendeak (gazteak nahiz helduak, nerabe nahiz zaharrak) osatzen du. Dirua ez da arazo izango gure TXAIKOLNAMOren prezioa kalean 49 €koa baita, oso prezio merkea eta edozeinen eskura dagoena.

Lanera txirrituaz joan-etorriak egiten dutenek izango dira gure bezeroetako batzu... adituek diotenez hurrengo 15 urtetan lanera bizikletaz joaten direnen kopurua lau aldiz biderkatuko baita.

Ikastetxeetara txirrituaz joaten diren ikasleak ere bai.

Kirola egiteko erabiltzen dutenek mugikorraz gain askotan GPS-a erabiltzen dute, eta jakina da egungo GPS-ek bateria asko kontsumitzen dutela... bidaia zertxobait luzatu ezkerro beharrezkoa izaten da kargatzea eta gure TXAIKOLNAMOari esker kargadore eramangarriak etxean utzi ditzakegu, ahaztu betirako... kargatuta dauden edo ez sortzen duen arazoa gaindituz.

Aisialdirako erabiltzen dutenek ere beti izango dute usb portuaren bidez mugikorra edo beste edozein gailu kargatzeko aukera.